



Arartekoaren 2021IR-1264-20 Ebazpena, 2021eko uztailaren 12koa. Horren bidez, amaitu egin da Gasteizko Udalak deitutako hautaketa-prozesuari lotutako kexa batean egindako jarduna.

Aurrekariak

1. Pertsona batek Arartekora jo zuen ez baitzegoen ados hautaketa-prozesu bateko oposizio-faseko bigarren ariketa osatzen zuten kasu praktikoen zuzenketarekin eta, horren ondorioz, bere azterketari esleitutako kalifikazioarekin.

Gasteizko Udalean karrerako funtzionarioak hautatzeko prozesua zen, zehazki, lanpostu honi dagokiona: administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, goi-mailako teknikaria, psikologia (A-105), Funtzio Publikoko zinegotzi-ordezkararen 2018ko uztailaren 31ko ebazpenaren bidez deitutako prozesua.

Pertsona horrek alegazioak aurkeztu zituen ariketa horren behin-behineko emaitzen aurka, idazki baten bidez. Idazki horretan aurkakotasun hori argudiatzen zuen, bai bere frogaren edukiari buruz, bai frogaren erantzunak hobeto puntuatutako beste proba baten erantzunekin alderatzeari buruz.

Alegazioak ezetsi egin ziren, epaimahaiak 2020ko maiatzaren 19an hartutako gogoeta batzuen arabera, baina pertsona horrek ez zituen egokitzat jo, uste baitzuen ez zetozeela bat irizpide profesionalekin eta helburuekin,; gainera, ez zieten erantzuten azaldutako gai guztiei, eta are gehiago, hautagai gisa zuen goera okertu ere egiten zuten.

Hori dela-eta, ariketako behin betiko emaitzak argitaratu ondoren, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuen sakoneko iritzietan oinarritutako idazki zehatz baten bidez. Bertan, epaimahai kalifikatzaileak emandako erantzunarekin ados ez zegoela adierazi zuen, eta beste behin ere bere probaren puntuazioa berrikusteko eskatu zuen.

2. Hasiera batean erakunde honek Gasteizko Udalari bidali zion informazio-eskaerak aurrekari horiek jasotzen zituen, hautaketa-prozesuetako epaimahai kalifikatzaileen ahalmenei buruzkoa zen, eta aurretiazko lehen balorazio bat aurreratzen zuen, prozesu horiek izapidetzean hartutako erabakiak arrazoitzeko eskakizunari buruz behin eta berriz agertzen den jurisprudentzia ikusita.
3. Gasteizko Udalak erakunde honi helarazi zion erantzun-txostenak, errekerimendu gehigarri baten ondoren, adierazten zuen goian aipatutako gora jotzeko errekurtsioa azkenean ezetsi egin zela, honako hauek oinarritzat hartuta: kexagileak aurkeztutako hasierako alegazioak, aholkulariaren ebazpen-proposamena eta oposizio-epaimahaiaren erabakia, zeinak uste baitzuen bere



eskumen teknikoaren esparruan jardun zuela, gainerako hautagaiei emandako irizpide berberekin eta behar bezala arrazoituta.

Adierazi zuen, halaber, alegazioen eta errekurtsioen berrikuspena anonimoa ezin dela izan kontuan hartuta, halakoetan epaimahaiak zuzenketa aurrez ezarritako irizpideen arabera izan dela egiaztatu baino ez dutela egin behar, eta ezin dela azterketa bat berriz zuzendu edo ebaluatzeko, zuzentzeko eta puntuatzeko irizpideak aldatu beste batzuen kaltetan.

Azkenik, txostenak zioen azterketa era horretan berrikusi zela, eta, behin zuzenketa berretsita, ezin zela beste berrikuspenik egin justizia-auzitegiek egindakoa salbu.

4. Erakunde honek gora jotzeko errekurtsioa ezesteko ebazpena eskuratu du, interesdunari jakinarazi zitzaiona. Ebazpen horretan, hain zuzen, alegazio batzuen aurkezpenari buruzko aipamen orokor bat jasotzen da, eta, jarraian, hitzez hitz jasotzen da epaimahaiak 2020ko maiatzaren 19an hartutako gogoeten edukia.

Ebazpen horrek, jarraian, hautaketa-epaimahaien eskumen teknikoa aipatzen du, eta Auzitegi Gorenaren urtarrilaren 31ko 104/2019 Epaiaren zati bat errepikatzen. Epai hori ere gure hasierako idazkian izendatu genuen, eta jurisprudentziak eskumen-tarte horren barruan hartutako jarduerak kontrolatzeko aukerei dagokienez izandako bilakaera deskribatzen du.

Azkenik, adierazi du, kasu honetan, deialdiaren oinarriekin batera, gaiak aztertzeko erreferentziarako bibliografia argitaratu zela, informazio-iturri gisa, eta zuzenketa-txantiloak edo balorazio-irizpideak argitaratu zirela, eta epaimahaiak, bere gaitasun teknikoaren barruan, Funtzionamenduaren Barne Eskuliburuan jasotako estrategia aplikatu duela. Arau hori oinarrietan bertan jasota dago, eta epaimahaiak egindako lehen bileran onartu zen.

Gogoetak

1. Gure eskaeran aurreratu zen moduan, kexa honetan aztertutako lehiaketa-prozesuen analisiaren abiapuntua balorazio-batzordeek edo -epaimahaiak beren eginkizunak betetzeko duten balorazio-tartea izan behar da.

Horregatik, organo horiek eskumen tekniko deitu ohi den ahalmena daukate; horren bitartez, dagozkien eginkizunak betez hartzen diren erabakiak gai bati buruzko irizpide tekniko baten adierazpen inpartziala osatzen dute.

Baina, gure eskaeran ere aipatu genuen moduan, ahalmen horren irismenak ezin du inola ere ekarri haren babesean hartutako jarduketak kontroleratik



salbuestea, ezta kontrol hori organo judizialei bakarrik esleitzea ere, erantzun-txostenean adierazitakotik ondorioztatzen denez.

Lehenik eta behin, gogoan izan behar da organo horien ahalmenak bideratzen direla deialdiaren oinarriak arau-esparru orokorraren barruan ahalik eta ondoen betetzera, bai eta kasu bakoitzean lortu nahi den helburu publikoa lortzen dela bermatzera ere.

Gainera, justizia-auzitegiak eta doktrina juridiko administratiboa askotan arduratu dira lehiaketa-prozesuak zuzentzeaz arduratzen diren organoei esleitzen zaien eskumen teknikoaren esanahiaz eta eremuaz, bai eta ahalmen hori proiektatzen duten kalifikazio espezializatuko egintzak kontrolatzeko aukeraz ere; hala, egiaztatu ahal izan da etengabeko bilakaera izan dutela, haien garrantzia mugatzeko eta kontrol-ahalmenak sendotzeko.

Ildo horretan, honako adibide hauek aipatu daitezke:

- 219/2004 Epaia, 2004ko azaroaren 29koa, Auzitegi Konstituzionalaren bigarren aretoarena:

“Este Tribunal ha afirmado, por una parte que «ni el art. 24.1 ni el 23.2 CE incorporan en su contenido un pretendido derecho de exclusión del control judicial de la llamada discrecionalidad técnica» (SSTC 86/2004, de 10 de mayo, FJ 3; 138/2000, de 29 de mayo, FJ 4), pero además, ha recordado (STC 86/2004, de 10 de mayo, FJ 3) que «la determinación de si un concreto curso cumple o no los requisitos exigidos en las bases de la convocatoria... no se incluye en el ámbito de la discrecionalidad técnica, de suerte que el Tribunal con su decisión de excluir determinados cursos por incumplimiento de los requisitos necesarios se limitó a fiscalizar desde el plano de la legalidad la actuación del órgano calificador». Del mismo modo, debemos afirmar que la determinación de si la fórmula empleada para la corrección de determinados ejercicios de un proceso selectivo ha sido aplicada correctamente o no, tampoco entra dentro del ámbito de la discrecionalidad técnica, y por tanto dicha circunstancia, que en absoluto implica sustituir la actividad de la Administración, debe ser controlada por los Jueces y Tribunales cuando así sea demandado por los participantes en el proceso selectivo.”

- 246/2018 Epaia, 2018ko maiatzaren 23koa, Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiaren Auzibideen Aretoarena:

“La demandante alega, en primer término, que la cuestión relativa a la valoración de concretos méritos en la fase de concurso de un proceso selectivo, entraña la interpretación jurídica de las bases de la convocatoria, por lo que los órganos jurisdiccionales tienen plena competencia para entrar en el fondo de la misma sin cortapisa alguna, dado que se trata de una cuestión reglada y no discrecional.

Lleva razón la recurrente, puesto que en la cuestión planteada en este litigio no se trata de controlar el núcleo técnico de la decisión del tribunal de selección, sino de comprobar si la resolución que el mismo ha adoptado se ajusta a las bases de la convocatoria y si los criterios seguidos por el mismo son conformes a Derecho, y por consiguiente, la fiscalización es exclusivamente sobre determinados extremos reglados, cuales son los contenidos en un baremo de méritos que no entrañan en realidad aspecto técnico alguno.

Por tanto, es aplicable la doctrina del Tribunal Constitucional, así como la jurisprudencia del Tribunal Supremo, que admite el control sobre aquellos extremos reglados, por no incluirlos en el ámbito de la discrecionalidad técnica (sentencia TC 219/2004, de 29 de noviembre, y

del TS de 11 de diciembre de 1998, 1 de julio de 1999, 10 de octubre de 2000, 28 de enero de 2003, 25 de junio y 22 de octubre de 2012).

Específicamente ha recordado la sentencia TC 86/2004, de 10 de mayo, en su fundamento jurídico 3, que «la determinación de si un concreto curso cumple o no los requisitos exigidos en las bases de la convocatoria... no se incluye en el ámbito de la discrecionalidad técnica, de suerte que el Tribunal con su decisión de excluir determinados cursos por incumplimiento de los requisitos necesarios se limitó a fiscalizar desde el plano de la legalidad la actuación del órgano calificador», y del mismo modo es cuestión jurídica, no técnica, la decisión sobre la valoración o no en el apartado de experiencia profesional de determinados servicios.

En el mismo sentido, la sentencia de la Sala 3ª del Tribunal Supremo de 25 de junio de 2012, con cita de la de 8 de marzo de 2010, ha declarado que " son ajenas al ámbito de la discrecionalidad técnica las comprobaciones matemáticas o aritméticas de la puntuación conferida en un proceso selectivo así como la determinación de si un concreto curso cumple o no los requisitos exigidos en la convocatoria".

En igual sentido, la sentencia de la propia Sala 3ª del Tribunal Supremo de 16 de mayo de 2011 insiste en que el órgano judicial "ni ha sustituido el juicio técnico del tribunal calificador, ni ha vulnerado la jurisprudencia aplicable a la discrecionalidad técnica de los órganos evaluadores, sino que ha actuado correctamente puesto que, tras valorar y apreciar la prueba documental practicada, consideró acreditada la existencia de un error en la valoración de méritos del demandante por parte del tribunal del proceso selectivo y, en consecuencia, procedió a la revisión jurisdiccional de la valoración que le fue conferida".

- 104/2019 Epaia, 2019ko urtarrilaren 31koa, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietarako Aretoarena:

"Y el debido análisis de lo suscitado aconseja recordar, con carácter previo, la jurisprudencia sobre el significado y ámbito que ha de reconocerse a la llamada doctrina de la discrecionalidad técnica, y sobre las posibilidades que ofrece el control jurisdiccional frente a los actos de calificación especializada en los que se proyecta dicha doctrina, en especial en lo referente al nivel de motivación que les es exigible.

Esa jurisprudencia, procedente de este Tribunal Supremo (TS) y del Tribunal Constitucional (TC), está caracterizada por el permanente esfuerzo de ampliar al máximo y perfeccionar el control jurisdiccional previsto constitucionalmente frente a toda actuación administrativa (artículo 106.1 CE) (...)."

Doktrina juridikoak ere hainbat aipamen egin ditu honi dagokionez. Hala, Tomas Ramón Fernándezek¹, eskumen teknikoa deitutakoa dela bide hartutako erabakien gainean, honako hau esan zuen:

"(...) esas valoraciones valen lo que valen las razones con las que sus autores las respaldan, unas razones que los jueces, que no son expertos en todas las ciencias, sino solo en Derecho, no pueden discutir, pero que sí pueden y deben someter al filtro de la «sana crítica» y rechazar, incluso, cuando no superen ese filtro, esto es, cuando omitan algún hecho relevante, contradigan los hechos que resulten probados o alteren éstos, incurran en apreciaciones jurídicas erróneas o, en fin, resulten ilógicas, arbitrarias o irrazonables o conduzcan a resultados inverosímiles, como acostumbra a destacar la jurisprudencia sobre la prueba pericial en todos los órdenes jurisdiccionales."

Bestalde, organo horien jarduketak administrazio-prozedura arautu baten barnean daudenez, eta bertan ere dagokion administrazio errekurtsioa aurkeztu

¹ Fernández, T.R. (2015). La discrecionalidad técnica: un viejo fantasma que se desvanece. *Revista de Administración Pública*, 196, 211-227.

daitekeenez, haien zuzenketa eta ordenamenduari egokitzeko azterketa bide hori baliatuz ere egin daiteke, epaitegietara jo beharrik gabe, edo hura gauzatu aurretiko urrats gisa.

Halaber, kontrolatzeko ahalmen hori onartuta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak² Arartekoari eskumena ematen dio era honetako kasuak aztertzeko, eta, horrekin batera, dagozkion balorazioak egiteko, bere ondorioak oinarritu ahal izateko beharrezkoa den informazioa eskatzeko eta, hala badagokio, behar diren ebazpenak egiteko.

2. Auzitegi Gorenaren eta Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak ezarri duenez, epaimahai kalifikatzaileen berezko lanari dagokionez eskatu daitekeen kontrol-elementu nagusietako bat honako hau da: haien egintzek justifikazio egokia eta arrazoitua izan behar dute, deialdia arautzen duten oinarrietan jasotakoaz gain, eta gainerako araudi aplikagarria errespetatzeaz gain.

Arrazoitzeko eskakizun hori ez da betetzen aplikatu beharreko irizpideen adierazpenarekin eta hartutako erabakiarekin; izan ere, gainera, nahikoa, berariazkoa eta banakakoa izan behar du, honako adibide hauetatik ondorioztatzen denez:

- 2010eko uztailaren 19ko epaia, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietarako Aretoarena:

“La fase final de la evolución jurisprudencial la constituye la definición de cuál debe ser el contenido de la motivación para que, cuando sea exigible, pueda ser considerada válidamente realizada.

Y a este respecto se ha declarado que ese contenido debe cumplir al menos estas principales exigencias: (a) expresar el material o las fuentes de información sobre las que va a operar el juicio técnico; (b) consignar los criterios de valoración cualitativa que se utilizarán para emitir el juicio técnico; y (c) expresar por qué la aplicación de esos criterios conduce al resultado individualizado que otorga la preferencia a un candidato frente a los demás.”

- 2014ko uztailaren 31ko epaia, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietarako Aretoarena:

“La sentencia se aparta de la jurisprudencia sobre la discrecionalidad técnica también en el extremo relativo a la motivación de las calificaciones numéricas porque esta Sala viene sosteniendo que, siendo en principio válida esta forma de medir o valorar el resultado de las pruebas en los procesos selectivos, tal como lo prevén el artículo 54.2 de la Ley 30/1992 y las bases de la convocatoria, el hecho de que en éstas solamente se haga referencia a una puntuación determinada no será bastante cuando el interesado la discuta, como aquí ha sucedido [sentencias de 29 de enero de 2014 (casación 3201/2012), 15 de octubre de 2012 (casación 4326/2011), 16 de mayo de 2012 (casación 1235/2011), 27 de abril de 2012 (casación 5865/2010), 10 de abril de 2012 (casación 183/2011), 19 de julio de 2010 (casación 950/2008), 2 de diciembre de 2008 (recurso 376/2006)]. Y, en este caso, solamente nos encontramos con esa puntuación pues los juicios razonados del tribunal calificador a los que alude la Sala de Madrid no son realmente tales porque se limitan a decir que la nota asignada es función de la capacidad de análisis demostrada y de

² 3/1985 Legea, otsailaren 27koa, “Ararteko” erakundea sortu eta arautzekoa.

la aplicación razonada de los conocimientos teóricos a la resolución del problema práctico planteado. Es decir, se limitan a repetir la fórmula utilizada por la base 2.1 pero sin incluir ningún elemento que permita considerarlo juicio razonado.”

- 2019ko uztailaren 31ko epaia, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietarako Aretoarena (errekurtso-zenbakia: 1306/2016):

“En el caso que examinamos la parte recurrente mantiene que la Administración no cumplió con el deber de motivación de su decisión técnica, incurriendo por ello en arbitrariedad, porque no justificó adecuadamente las razones de su decisión (i) cuando le fue solicitado tras la publicación del listado de aprobados y antes de finalizar el plazo de interposición de recurso administrativo, ello porque la información facilitada por la secretaria del órgano de selección y que consistió en darle la puntuación que se le otorgó en los dos supuestos prácticos que integraban el segundo ejercicio, era incompleta pues se le adjuntó una copia de su ejercicio sin corregir y sin la puntuación otorgada en cada una de las preguntas; y (ii) cuando aquella decisión fue objeto de impugnación en vía administrativa, ello porque la resolución expresa tardíamente dictada tampoco aplica los criterios de valoración previamente aprobados por el propio órgano de selección en sesión de 30 de septiembre de 2013.

En definitiva, lo que se está cuestionando no es cómo se debería llevar a cabo la valoración del segundo ejercicio sino el cómo se valoró su ejercicio aplicando los criterios previamente fijados. Queda claro en la exposición de la parte y, también de la Administración, que el órgano de selección fijó previamente los criterios de calificación y los puso en conocimiento de los participantes en el proceso selectivo facilitándoles una hoja de instrucciones y un cuadernillo donde constaba la puntuación que se concedería a cada una de las preguntas -se sobreentiende, correctamente respondidas-. Lo que se cuestiona es cómo se aplicaron esos criterios para valorar sus respuestas y, por tanto, la última de las exigencias antes citadas para considerar que la motivación del juicio técnico efectuado es suficiente.

Aun cuando en términos de estricta formalidad pudiera parecer que el recurrente tuvo conocimiento completo de las decisiones del órgano encargado de valorar el proceso selectivo pues al darse respuesta expresa al recurso de alzada -resolución de 25 de abril de 2014- se le indicaron las calificaciones de su segundo ejercicio de la oposición al incluirse las puntuaciones desglosadas de cada uno de los dos ejercicios y por preguntas formuladas, debemos llegar a la estimación del recurso de casación por cuánto la administración nunca ha explicado al recurrente las razones por las que sus respuestas no fueron admitidas.

El recurrente conoce cómo se valorarían cuantitativamente las respuestas correctas y los criterios empleados para calificarlas como tales, pero lo que no conoce, y este Tribunal tampoco, es por qué sus respuestas no fueron aceptadas. Más concretamente, esa afirmación debe reafirmarse si se confronta la concreta impugnación de las puntuaciones otorgadas por las respuestas dadas a las preguntas 2ª y 9ª del caso práctico 2º, que fueron las expresamente cuestionadas por el recurrente, tal y como deriva de su escrito de demanda. La parte analiza las preguntas formuladas, las respuestas por él dadas y sabe cuáles eran las respuestas válidas aportadas por el Tribunal, pero lo que no sabía, y así lo resaltaba, es por qué en aplicación de los criterios a aplicar por el órgano de valoración sus respuestas fueron valoradas con una determinada puntuación, inferior a la total posible, ni las razones por las que (i) en la segunda pregunta no se le concedió ningún punto cuando con la contestación dada, aunque con cita a los grupos y de los puestos desempeñados, se podía estar haciendo referencia clara a los períodos de tiempo que entendía aplicables, y (ii) en la novena pregunta se le otorgaron 0,60 puntos de los posibles (1 punto) sin saber el motivo por el que no se le reconocieron los 0,40 restantes si en su respuesta podría estar incluida la que se debería tener por válida.

Es evidente que el órgano de selección nunca ha expresado por qué la aplicación de los criterios por él preestablecidos para valorar los supuestos del segundo ejercicio conduce

al resultado individualizado otorgado al recurrente y que, a la postre, determinó su exclusión del proceso de ingreso.

En definitiva, consideramos que concurren en la sentencia los vicios imputados en este recurso pues no ha sido correctamente aplicada la doctrina jurisprudencial de esta Sala Tercera sobre el control de la discrecionalidad de los órganos de selección y sobre la necesidad de motivación de sus decisiones cuando le sea solicitada información concreta por los participantes en los procesos selectivos, concurriendo falta de motivación formal y material puesto que (i) no se indicaron al recurrente las razones de la decisión administrativa, y (ii) porque aunque constan dos de los tres elementos que según la jurisprudencia de esta Sala constituyen el contenido de la motivación -se conoce el objeto de la calificación o valoración, que no fue sino el contenido de los casos prácticos realizados y que integran el segundo ejercicio (que obran en el expediente); se sabe también cuál fue el criterio seguido para decidir la calificación (el criterio aprobado por el Tribunal Calificador)- no se conoce el tercero de ellos, el referido a cuál fue la razón de la puntuación finalmente otorgada, los motivos concretos del desajuste del examen con el criterio fijado y aplicado a todos los aspirantes del proceso selectivo y conocido por todos los concursantes.”

Erakunde honen aburuz, arrazoitzeko eskakizunaren ondorioz, epaimahai kalifikatzaileak hartzen dituen erabakiak justifikatu behar ditu, eta hautaketa-prozesuetako interesdunen planteamenduei erantzun arrazoitua eman behar die.

Betebehar horren arabera, pertsona horiek azterketen ebaluazio-lan horretan erabili dituzten balorazio-irizpideak ezagutzeaz gain, irizpide horiek aplikatzeak kasu zehatz bakoitzean azkenean eztabaidatutako banakako emaitzara zergatik eraman duen ere jakin behar dute, bai eta pertsona horiek aurkeztutako eskaerak ezesteko erabili ahal izan dituen erabakiak nahiz argudioak hartzera bultzatu duten arrazoi zehatzak ere.

Prozesuaren elementu objektiboekiko errespetua zaindu behar denez, eta interesdunei beren eskaera defendatzeko aukerak bere osotasunean bermatu behar zaizkienez, ahalik eta baliabide gehien jarri behar dira, jarduketan arrazoiari dagokienez gertatu litezkeen iraunkortasun, adierazpen eta komunikazioko zailtasunak gainditzen saiatzeko, batez ere zailtasun horiek eztabaidatzen badira; izan ere, horrela bakarrik, eta emaitzaren desadostasunari eusten bazaio ere, sortu daitezkeen zalantza guztiak argitu ahal izango dira, eta erabakiak aurrez finkatutako irizpideetara eta, oro har, erreferentzia-esparru osora egokitzen direla baieztatu ahal izango da.

Halaber, kontuan izan behar da lehiaketa-prozesuetan oso garrantzitsua dela herri-administrazioen jardunean gardentasun-printzipioa aplikatzea.

3. Kasu honetan, kexagilearen desadostasuna alegazio-idazki baten bidez gauzatu zen, lehenik eta behin; idazki horretan, esleitutako kalifikazioarekin bat ez zetorrela adierazten zuen, eta, gainera, funtsezko arrazoi batzuk ematen zituen, epaimahai kalifikatzaileak egindako lana baliogabetzen zutenak. Geroago, alegazio horiek ezesteko emandako erantzunarekin bat ez etortzean,

gora jotzeko errekurtoa aurkeztu zuen, eta errekurto horretan, bere jarrera justifikatzeko arrazoi sakonak adierazten zituen eta argudio berriak ematen.

Erakunde honen iritziz, eta hasierako eskabidean adierazi zen moduan, nahiz eta epaimahai kalifikatzaileak pertsona horri emandako erantzunek –bere alegazioak ezesteko oinarri gisa– azaldutakoari buruzko hainbat gogoeta eta ondorio jasotzen zituzten, ez zuten inolako garapenik egin, kasu guztietan, alde zuzen zehaztutako irizpideak aplikatzearen ondorioz beren azterketari esleitutako emaitzetara eraman zuten eta beren eskaeraren atalak baloratzea eragotzi zuten funtsezko arrazoi objektiboak zein ziren jakiteko. Horrenbestez, finean, babesgabetasun egoera sortu ahal izan zen.

Arartekoa, orduan, inguruabar hori bereziki deigarria zen alderdi zehatz batzuen gainean jarri zuen arreta. Hala, zenbait apartatu aipatu ziren, 1.2 apartatua, esate baterako (erantzunak ez duen alegatutako argudioa jasotzen), 1.3 apartatua (erantzunik ez zuen jasotzen), 3.2 apartatua (hasierako zuzenketa aldatzen zen), edo 4.3 apartatua (alegazioa ukatzeko arrazoitzeko tesia zen hark ez zuela inolako logikarik).

Illo beretik, kexagileak puntuazio handiagoarekin kalifikatutako probaren gai zehatzei egindako erreferentziak ezetsi egin zirela azpimarratzen zen, haren balorazio edo analisiaren xehetasun gehiagorik eman gabe, honako ohar hau salbu: proba horren edukia *“zehatza zen, eta finkatutako zuzenketa-irizpideak betetzen ditu”*, eta arrazoi hori dela bide, ezin zen ulertu alegazioen arrazoei erantzutea goian adierazitako arrazoen baldintzen arabera.

Ondorio bera atera daiteke une horretan gora jotzeko errekurtoaren ebazpenean. Izan ere, haren oinarrien arabera, alegazioak ezesteko oinarri gisa bere garaian emandako erantzuna hitzez hitz aipatzen du, eta beraz, aurrez ikusitako gabeziak errepikatzeaz gain, ez ditu jasotzen interesdunak bere idazki berrian adierazitako arrazoiak eta argudioak; haien gainean, beraz, ez du ematen epaimahaiaren balorazioaren eta hura babesteko justifikazio zehatzen berririk.

4. Gasteizko Udalaren erantzun-txostenak ziurtatzen duenez, alegazioen eta errekurtoen berrikuspenak zuzenketa aurretik ezarritako irizpideen arabera egin dela egiaztatu baino ez du egiten, anonimotasuna bermatzea ezinezkoa delako. Horregatik, gaineratzen du ezin dela azterketa bat berriro zuzendu beste egoera edo testuinguru batean, eta adierazten du, azkenik, ebaluatzeko, zuzentzeko eta puntuatzeko irizpideak aldatzeak egoera anonimo eta berdintasunezko batean ebaluatutako beste pertsona batzuei kalte egiten diela.

Erakunde honek uste du arreta berezia jarri behar dela lehiaketa-prozesuetako probak zuzentzean; izan ere, irizpideei, objektibotasunari eta anonimotasunari dagozkion berme guztiak bete behar dira.



Bestalde, irizpide horiek alde zaureratik objektibatu badira eta behar bezala arrazoituta badaude, erakunde hau bat dator txostenean adierazitakoarekin, hau da, proba baten emaitzen aurkako erreklamazioak aurkezteak ez dituela irizpide horiek beste batzuekin ordeztu behar.

Azkenik, bistan da kexagilearen aldeko interpretazioa soilik aplikatzea ez zela enplegu publikorako sarbidea arautzen duten printzipio orokorren barruan sartuko, eta ez zutela babestuko ere, aurreko ataletan aipatutako berrikuspen-eta kontrol-ahalmenek.

Hala ere, horrek guztiak ez du esan nahi interesdunek hautaketa-prozesu batean aurkezten dituzten alegazio edo errekurso guztiak nahitaez ezetsi behar direnik, horiek aurkezteak haien nortasuna indibidualizatzea eta anonimotasuna ondorioz gabe uztea eragin duelako, eta, era berean, ezin direlako inola ere baliatu epaimahai kalifikatzaileen jarduna kontrolatzeko ahalmenak.

Aldiz, epaimahai kalifikatzaile baten erabakiaren aurka errekurso bat egotearen legezko xedapen hutsari esker, honako hau ondorioztatu daiteke: administrazio-arloan aplikatzekoa den araudiak onartzen du prozedura baten barruan hautaketa-prozesu batean hartutako ebazpen bat aldatzeko aukera, errekurso hori aurkezten duen pertsonak aurkeztu ahal izan dituen egitatezko eta zuzenbideko elementuetan oinarrituta, eta haien arabera egokitzat jotzen da bere eskaera onartzea. Horrek ez du esan nahi hori lortzeko ezinbestean aldatu behar izan denik finkatutako zuzenketa-irizpideak osatzen duten faktoreetako bat.

Kexa hori eragin duen kasuan, ezin izan da puntu hori aztertu ere egin, azterketa lehenago eten baita, zehazki, epaimahaiak emandako erantzunak behar bezala arrazoituta zeuden eta interesdunak azaldutako arazoak modu arrazoituan ebazteko irizpide-elementu guztiak ematen zituzten erabakitzeko.

Arartekoaren ustez, epaimahai kalifikatzaileak kexagilea nor den jakiteak, bai alegazio- eta errekurso-fasean, bai kexa-espeditante hau izapidetzean, ez zuen inolako eragozpenik sortzen bere eskaera eta hura oinarritzen zuten argudioak aurreko ataletan adierazitakoarekin bat etorri baloratzeko.

Hain zuzen, erakunde honentzat, une horretan anonimotasuna ez izateak kontuan hartu beharreko inguruabarra izan beharko zuen, are gehiago honako hau indartzeko, ahal bada: justifikazio egokia aurkezteko premia eta interesdunak izan zezakeen edozein errezelo uxatzeko beharra.

5. Hori guztia ikusita, agerian geratu da ez direla behar bezala bete kexagileak oposizio-faseko bigarren ariketan bere azterketan emandako puntuazioarekin ados ez zegoela adierazteko erabili zituen argudioak baztertzeko arrazoi eskakizunak. Beraz ezin da pentsatu aurkeztutako kexari erantzun zaionik.

Nolanahi ere, erakunde honek badaki zaila dela une honetan egoera hori aldatzea, kontuan hartuta gure eskaerari erantzuteko txostenaren baldintzak eta prozesua amaitu zenetik zenbat denbora igaro den, eta prozesu hori behin betiko bihurtu da. Hori guztia aztertuta, garbi dugu jarduteko gure aukera guztiak agortu ditugula, eta, beraz, gure esku-hartzea amaitu behar dugula; hala, ondorio hauek atera ditugu, lehen aipatutako otsailaren 27ko 3/1985 Legearen arabera.

Ondorioak

1. Hautaketa-prozesuez arduratzen diren epaimahaiak eskumen teknikoko tarte bat dute esleituta dituzten eginkizunak betetzeko, baina horrek ez du esan nahi beren jarduketak kontrolarik salbuetsita daudenik.

Kontrol horren irismena zabaltzeko egin du jurisprudentziak, eta administrazio-prozeduraren barruan, berrikuspen judizial baten bidez edo eskubideak babesteko prozedura baten bidez gauzatu daiteke.

2. Kontrol-elementu nagusietako bat da epaimahaien erabakiek arrazoibide egokia eta nahikoa izan behar dutela, interesdunek ebaluaziorako aurrez ezarritako irizpide objektiboen berri izan dezaten, bai eta irizpide horiek aplikatzeak kasu bakoitzean emaitza zehatza zergatik ekarri duen ere.

Eskakizun horretan sartzen da, halaber, epaimahaiak balizko erreklamazio edo errekurtsioetan oinarrituriko alegazio eta argudioei buruz egindako balorazioaren berri izatea, bai eta epaimahaiak ezesteko erabili duen justifikazio zehatzarena ere.

Arazoia modu horretan jasota eta adierazita egotea da interesdunek beren eskaera babestu ahal izateko bide bakarra, ordenamendu juridikoak ematen dizkien bermeekin, sortu ahal izan diren zalantza guztiak argitzeko eta jarduketak zuzenbidearen arabera direla baieztatzeko.

3. Espediente honetan aztertutako kasuan, kexagileak aurkeztutako alegazioei, eta, bereziki, ondoren jarritako errekurtsioari, epaimahai kalifikatzaileak emandako erantzunak ez zituzten bete eskatu zitezkeen arrazoitze-baldintzak; izan ere, ez zituzten azaldutako gai guztiak argitu, ez zuten jakiten utzi zein ziren kexagilearen argudio guztiak ezesteko arazoak, eta, gainera, adierazpen orokor eta zehaztugabeak erabili zituzten.
4. Alegazioak edo errekurtsioak aurkezteak interesduna zein den jakiteko aukera ematen badu ere, aurreko ataletan aipatutako kontrol-lana egiten jarraitu daiteke, eta baita beharrezkoak diren jarduketa guztiak berrikusten eta, hala badagokio, aldatzen ere; egoera horietan, gainera, justifikatzeko eskakizuna sendotzen da.